



UNITATEA	Etxebizitza
XEDEA	Behin betiko ebazpena (alegaziorik gabe). Deialdia: Tolosan etxebizitzak eraberritzeko laguntzen bidez, alokairu soziala bultzatzeko 2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia. BDNS (identif.): 827316.
TITULARRA	TOLOSAKO UDALA

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Etxebizitza Saileko/Azpisailleko zinegotzi delegatu Ander Figuerido Zubiria(r)ena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak(e)koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela. Geroztik, bi aldaketa izan ditu: GAO, 68. zk., 2023-01-26an; eta GAO, 89. zk., 2024-05-09an.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan honako dirulaguntza lerro hau sartua dagoela: Tolosan etxebizitzak eraberritzeko laguntzen bidez, alokairu soziala bultzatzeko 2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia. BDNS (identif.): 827316. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023-02-01).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako 40.000 euroko zenbatekoa finkatu dela, 2025eko udal-aurrekontuaren 0600.780.02.152.20 partidan.

LAUGARRENA.- Tolosako Udalak, zinegotzi delegatuaren 2025/1059 Dekretuaren bidez, onartu zuela Tolosan etxebizitzak eraberritzeko laguntzen bidez, alokairu soziala bultzatzeko 2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia. BDNS (identif.): 827316, lehiarik gabeko konkurrentziaduna, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, 82 zenbakiarekin, 2025eko maiatzaren 05ean; zehazki, honako hau:

Deialdiaren izena:

Tolosan etxebizitzak eraberritzeko laguntzen bidez, alokairu soziala bultzatzeko 2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia. BDNS (identif.): 827316

Helburua: Tolosako udalerrian, Alokairua soziala bultzatzea hutsik dauden etxebizitzak eraberritzeko laguntza bidez.

BOSGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2025eko maiatzaren 5eko datarekin (82. Zkia) argitaratutako deialdiaren 5. Puntuan zehazki adierazitako epean, 2025eko abuztuaren 20tik irailaren 20ra bitartean ez da eskaerarik jaso Tolosako Udaleko Erregistroan.

Aurreko guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- 2025. urteko Tolosan etxebizitzak eraberritzeko laguntzen bidez, alokairu soziala bultzatzeko 2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia. BDNS (identif.): 827316 huts deklaratzeko eskaerarik ez delako jaso.

BIGARRENA.- Kontu Hartzaileza Azpisailari behin betiko ebazpenaren berri ematea.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsua aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsua aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsuari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, udal idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Ander Figuerido Zubiria

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025DO150009-BEHIN BETIKO EBAZPENA/RESOLUCIÓN (TOLOSAKO UDALA)